

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko uztailaren 6tik 12rako astea**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.U. (Estatuko Aldizkaria Ofiziala) 2020/07/07

- Akats zuzenketa, honako ebazpen honena: Ebazpena, 2020ko ekainaren 19koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren aseguru-entitateen, berraseguruen eta Gizarte Segurantzarekin lankidetzat duten mutualitateen alorreko Estatuko Hitzarmen kolektiboaren 2019ko behin betiko ordainsari-berrikuspena eta ondainsari-taulak. [2020-7423 xedapena - 1 orri.](#)
- Ebazpena, 2020ko ekainaren 29koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den helikopteroekin aireko lanak eta garraioa egiteko, mantentze-lanetarako eta konponketarako sektorerako III. Lan hitzarmen kolektiboa. [2020-7675 xedapena - 37 orri.](#)

E.A.U. (Estatuko Aldizkaria Ofiziala) 2020/07/10

- Ebazpena, 2020ko ekainaren 29koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren Zerbitzuguneen 2020ko Estatuko hitzarmen kolektiboaren ordainsari-berrikuspena eta ordainsari-taula. [2020-7676 xedapena - 2 orri.](#)

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/07/06

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.- Premiazko neurriak.-** 25/2020 Errege Lege-dekretua, uztailaren 3koa, berraktibazio ekonomikoa eta enplegua babesteko premiazko neurriei buruzkoa. [2020-7311 xedapena - 59 orri.](#)

2020/07/08

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.- Premiazko neurriak.-** 26/2020 Errege Lege-dekretua, uztailaren 7koa, COVID-19aren eraginari garraioaren eta etxebizitzaren alorrean aurre egiteko ekonomia berraktibatzeke neurriei buruzkoa. [2020-7432 xedapena - 52 orri.](#)
- **AUZITEGI KONSTITUZIONALA.- Konstituzio-kontrakotasuneko helegiteak.-** 2295-2020 konstituzio-kontrakotasuneko helegitea, ekonomia eta enplegua sustatzeko premiazo neurri osagarriei buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege-dekretuko seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarrien, bigarren xedapen iragankorraren eta azken xedapenetako lehenengoaren aurka. [2020-7433 xedapena - 1 orri.](#)
- **LURRALDE POLITIKA ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA.- Antolamendua.-** 644/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, Kanpo Gaien, Europar Batasunaren eta Kooperazioaren Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duena, eta Ministerio-sailen oinarrizko egitura organikoa ezartzen duen urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua aldatzen duena. [2020-7437 xedapena - 28 orri.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/07/06

- LAN ETA JUSTIZIA SAILA
 - AGINDUA, 2020ko ekainaren 23koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresetan laguntza teknikoa emateko dirulaguntzak arautzen dituena eta laguntza horietarako deialdia egiten duena. [2020-2631 xedapena - 11 orri.](#)
 - EBAZPENA, 2020ko ekainaren 18koa, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, COVID-19agatik hauteskunde prozesuak aldi baterako etenda egon ondoren, hauek berrekitearren inguruan Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskunde sindikalen batzordeko kideek sinatutako akordioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzen duena. [2020-2631 xedapena - 5 orri.](#)

[2020/07/07](#)

- ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.- **EBAZPENA, 2020ko uztailaren 1ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, aparteko dirulaguntzetarako deialdi bat argitaratzeko dena; dirulaguntzen hartzaileak laneratzeko enpresak eta enplegu-zentro bereziak izango dira, zehazki beren jarduerak etenda edo murriztuta dituztenak COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoera dela eta. 2020-2650 xedapena – 15 orri.**

[2020/07/08](#)

- SEGURTASUN SAILA.- **84/2020 DEKRETUA, ekainaren 30ekoa, COVID-19aren inpaktuari aurre egiteko, jokoaren sektoreko presako neurriei buruzkoa. 2020-2665 xedapena - 3 orri.**
- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.- EBAZPENA, 2020ko ekainaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez erabakitzen baita Lanbideko Administrazio Kontseiluak 2020ko apirilaren 7ko bileran hartutako erabakiaren ondorioz iragarritako aparteko dirulaguntzak ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea luzatzea; dirulaguntzen hartzaileak norberaren konturako langileak edo langile autonomoak dira, zehazki beren jarduerak etenda dituztenak COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoera dela [eta. 2020-2672](#) - [xedapena - 2 orri](#)**

[2020/07/09](#)

- OSASUN SAILA.- **[AGINDUA, 2020ko uztailaren 8koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez osasun publikoaren arloko neurri bereziak hartzen baitira Ordiziako udalerrian sortutako COVID-19 pandemiaren agerraldi epidemikoari eusteko. 2020-2687 xedapena - 7 orri.](#)**

- GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK.- **EBAZPENA**, 2020ko ekainaren 24koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariarena, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 5/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 26koa, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiunturazko zerga arloko neurriei buruzkoa. [2020-2688 xedapena - 1 orri.](#)
- KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA.- **AGINDUA**, 2020ko ekainaren 30ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, mikroenpresa kategoria duten eta COVID-19 pandemiaren ondorioz deklaraturako osasun alarmaren eragina jasan duten kultura sektoreko sozietate eta elkarteentzako 2020ko laguntzak arautzen dituen. [2020-2699 xedapena - 11 orri.](#)
- **LAN ETA JUSTIZIA SAILA.-** AGINDUA, 2020ko ekainaren 23koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, zeinaren bidez iragarri eta arautzen baitira gizarte-ekonomian ekiteko, gizarte-ekonomiako enpresen lurralde-sustapen planifikatua bultzatzeko eta COVID-19ak kaltetutako gizarte-ekonomiako enpresak finkatzeko laguntzak. [2020-2700 xedapena - 18 orri.](#)

[2020/07/10](#)

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.-** AGINDUA, 2020ko uztailaren 7koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, artisans-eran ardoa, sagardoa eta garagardoa egiten dituen sektorean berme gisako finantza-laguntzak ezartzen dituen (Nekafin programa). [2020-2710 xedapena - 23 orri.](#)
- EZKUNTZA SAILA.
 - AGINDUA, 2020ko ekainaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteen federazio eta konfederazioei bideratutako laguntzen deialdia. (IE1. Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza). [2020-2712 xedapena - 17 orri.](#)

- **AGINDUA, 2020ko uztailaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2020ko oporraldian euskara indartzera bideratutako hezkuntza-jardueretan Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritu nahi duten erakundeentzako laguntzen deialdia egiten duena. (IE2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren arreta). 2020-2713 xedapena – 13 orri.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2020/07/06

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA.- ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.-** Hutsen zuzenketa 2020ko ekainaren 8ko ALHAOn (64. zk.) argitaratutako 1290 iragarkian, Foru Gobernu kontseiluaren ekainaren 2ko 7/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuari buruzkoan. Onestea COVID-19rekin lotutako premiazko neurriak, sozietateen gaineko zergan eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eragina dutenak Zuzendua: 2020/1290.- 2020-1715 xedapena -1 orri

2020/07/08

- **FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.-** Foru Gobernu Kontseiluaren 22/2020 Foru Dekretua, ekainaren 30ekoa. Onestea mahasti aseguruak kontratatze laguntzen oinarri arautzaileak eta laguntza horien 2020ko deialdia.- 2020-1759 xedapena – 9 orri.

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/07/07

- **ERABAKIAK.-** Kontseiluaren 2020/970 (EB) Erabakia, 2020ko uztailaren 3koa, Kontseiluaren barne-erregelamenduaren aldi baterako salbuespena, 2020/430 (EB) Erabakiak ezarria eta 2020/556 (EB) eta 2020/702 (EB) Erabakiek luzatua, berriz ere luzatzen duena, COVID-19aren pandemiak Batasunean eragindako bidaiatzeko zailtasunak kontuan hartuta. 1 L 216/1

2020/07/08

- **ERREGELAMENDUAK.-** Batzordearen 2020/977 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2020ko uztailaren 7koa, produktu ekologikoen ekoizpenaren kontrolei dagokienez 889/2008 (EE) eta 1235/2008 (EE) Erregelamenduetan xedatutakoan salbuespenak ezartzen dituen, COVID-19aren pandemiaren ondorioz (¹) [L 217/01](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO